

## Anbulatorio berriko ateak astelehenean irekiko dituzte

Pasa den astelehenean inauguratu zuten osasun zentro berriaren eraikina

Lasarte-Oriako ambulatorio berriaren eraikina inauguratu zuten astelehen goizean. Ekitaldian Osasuneko kontseilaria, Gabriel María Inclán, Osakidetza-ko eki-eskualdeko zuzendaria, Eduardo González Lombide eta udaleko agintariak bertan izan ziren. Kiroldegi ondoko osasun-zentro berriak astelehenean, urtarrilaren 26ean, zabalduko ditu ateak.

Osasun-zentro berriak 1.500 m<sup>2</sup> -aurrekoa baino 400 m<sup>2</sup> gehiago- eta 28 kontsulta izango ditu, lehen baino 7 kontsulta gehiago: familia-medikuntzako 18 (lehen baino 5 gehiago), pediatriako 3 (1 gehiago), ginekologiako 1, emaginarentzat 1, azterketa ginekologikoentzat 1, taldeko jardueretarako 1, eta froga funtzionalentzako 3 (1 gehiago).

### Langile gehiago

Kontsulten kopuruaren gehitzearekin batera, langile kopurua handiagoa izango da ere:

pediatra bat, familiako mediku bat, erizain bat eta administrari laguntzaile bat. Gainera, egun Usurbilgo Zaharren Egoitzako medikuak ambulatorio berriaren egun erdiz lana egingo du. Horrela, mediku bakoitzak gaixo gutxiago izango ditu eta hauekin denbora gehiago egon ahal izango da, Inclanek adierazi zuenez. Honen harira, "lehen mailako arreta eskuragarria eta kalitatezkoa eskaini nahi dugu".

Udalak 3.700.000 eurotako inbertsioa egin du ambulatorioaren eraikuntzan eta Osakidetza 200.000 eurotako gastua egin du azpiegituran eta altzarietan alkateak, Ana Urchueguiak, eskaini zituen datuen arabera. "Udal-erriaren beharrei erantzuneko eraikin moderno bat egin dugu. Bitartekoak jarri ditugu, baina osasun zerbitzua hobetzen jarraitzeko Osakidetzari zerbitzu gehiago eskatzen jarraituko dugu".•



Agurra, zinta mozketa, eraikin berriatik bisita bat, agintarien hitzak eta luntxa. Ez zen ezer falta inaugurazio ekitaldian.



Oinatz taldeak beste irteera antolatu du otsailerako Aranora /4

### KIROLA | 6

XV. Pala txapelketan izena emateko epea astelehenean zabalduko dute



Udalak eta Xpression elkarteak hitzarmena berritu dute /4



**ADURIZ DE LASARTE S.A**

Loidi kalea 3 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 361278



**SUGATE**  
Sukaldeak



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guzietako etxetresna elektrikoak

  
Pintore kalea 5 • Tel./faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • e-maila: sugate@euskalnet.net

**Zorion-agurrak**



**Adrian eta Lierni**

Zorionak bikote zuen urtebetetzean. Hamar eta zortzi muxu handi familiaren partetik.



**Sebastian**

Zorionak aitona. Muxu asko familiaren partez. Bereziki Maitane Endika eta Julen.



**Eneritz**

Zorionak zure bostgarren urtebetetzean. Ondo pasa famili osoaren partetik.



**Aitor**

Zorionak Potxoki! Segi aurrera txapelkun! Muxu asko Nahia, ama, aita eta familiaren partetik.



**Josu**

Zorionak, dagoeneko 10 dira, ondo pasa! Gurasoak, Xabier eta Ane.



**Alazne**

Ai ai ai! Libratuko zinela uste zenuen... Zorionak marimondongi eta aste-buruan pasa ongi!



**Leire**

Urte berriaren hasierako urduritasunarekin pasa egin zitzaigun... Zorionak!!!



**Zuriñe**

Zorionak "zuzen"! Aurten nahi duzun bezela ospatu, baina lasai ibili, 22ak ez dira txantxetakoak.



**Irati**

Zorionak guapa! Zure I. urtebetetzean. Muxu pila bat aitaxo, amatxo eta aitona-amonaren partetik.



**Mattin**

Sei muxu handi, Peru, guraso eta aitona-amonaren partetik.



**Carolina**

18 muxu handi Zuma's, Jokin eta Adrianen partetik

**Guardiak**

- Ostrala, 23**  
Urbistondo, San Frantzisko I  
Tel.: 943 366567
- Larunbata, 24**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Igandea, 25**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Astelehena, 26**  
Orue, Jaizkibel plaza 2  
Tel.: 943 362652
- Asteartea 27**  
De Miguel, Kale Nagusia 32  
Tel.: 943 371151
- Asteazkena, 28**  
Rodriguez, K. Nagusia 42 atzea  
Tel.: 943 361774
- Osteguna, 29**  
Gil, Kale Nagusia 24  
Tel.: 943 361529

**Telefonoak**

- Osasuna / Larrialdiak**
- Osasun Zentroa ... 943 007960
- DYA ... 943 464622
- Gurutze Gorria ... 943 363953
- Udaltzainak ... 943 362442
- Ertzaintza ... 943 288888
- SOS Deiak ... 112
- Udala**
- Erregistroa ... 943 376055
- Euskarako Zerbitzua 943 376184
- Kiroldedia ... 943376182
- Kulturetxea ... 943376181
- Bakezko epaitegia ... 943371629
- Zerbitzu Sozialak ... 943376179
- Zentro Zibikoa ... 943363958
- KIUB ... 943361605
- Udal euskaltegia ... 943361621
- Obrak eta zerbitzuak ... 943 376180



**Jaiotzak**

Iker Carrillo Arroyo,  
urtarrilaren 17an



**Heriotzak**

Maria Narcisca Loidi Aguirre-  
bal, urtarrilaren 13an 86 urte  
zituela

**Azoka txikia**

**Eskaintza inmobiliarioak**

- Lasarte-Oriako zentroan pisu bat eta garajea alokatuko nituzke. Harremanetarako zenbakia, 686 674 552.

- Urbarten garaje plaza bat alokatzen dut. Tamaina handikoa, kotxe familiarra edo furgoneterako aproposa. Harremanetarako zenbakia, 943 376 115.

- Pisu salgai Iruran. 3 gela, komuna, sukaldea eta egongela. Dena kanpoaldea eta eguzkitsua. Berogailua eta armairu enpotratuak ditu. Tel.: 695 785 153.

- Logela bat alokatzen da etxebizitzita batean, Zumaburuko auzoan, Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 600 612 085

- Etxea alokairuan Lasarteko erdialdean. Eraikuntza berria, 30 metroko terraza eta bista latzak. 2 logela, egongela-komedorra bat eginda, sukaldea trasteroarekin. Eguzkitsua: etxeko gela guztiek terrazarako irteera dute. Tel.: 946563345, arratsaldez, Axier.

**Salerosketak**

- MONTY txirrinda urdina saltzen dut, garbia eta kolperik gabea eta 5 eta 9 urte arteko haurrentzat aproposa dena. Salneurria 60 euro. Deitu 943 366 435 edo 627 358 898 telefono zenbakietara.

- Salgai Suzuki Vitara 1.9d diesel, deskapotea, 1999. Urtekoa eta 178.000 km. Harremanetarako zenbakiak 616 333 017 edo 666 116 333.

- Salgai Renault Laguna 2.2 TD autoa. Matrikula SS-AY da, zaindutakoa, egoera onean. Tel.: 659 430 640.

**Oharretarako:**

Tel.: 943 366858 • Geltoki kalea 4 • txintxarri@ttakun.com  
www.txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburak.com

- Inauteritako mozorroak salgai ditut: Asterix-Obelix, iratxoak, etab. Informazio gehiago 638421713 telefono zenbakian.

**Lan-eskaintzak**

- Irakaslea behar da hirugarren mailako ikasle bati klase partikularrak emateko. Interesatua bazau, deitu mesedez 615 793 964 zenbakira (Roberto).

- Pertsona bat behar da euskarako klase partikularrak emateko. Interesatua bazau, deitu. Tel.: 943 361985 edo 659 590217

**Lan-eskariak**

- Pertsona arduratsua eta klinika laguntzaile, geriatria eta psikologia esperientziadunak pertsona adinudak zainduko lituzke. Tel.: 680 983 527, Karlos

- Bigi Garbitasunak. Alfonbrak, etxeak, bulegoak, etab. garbitzeko prest gaude. Deitu inongo konpromezurik gabe. 638 944 604 - Irene- edo 695 708271 -Itsaso-.

**Bestelakoak**

- Bajista baten bila gabiltz rock talde bat egiteko. Jotzeko tokia Lasarten daukagu. Rock dantzagarria egitea gustatuko litzaiguke Funky pixkat ere erabiliz. Interesatuek, deitu telefono honetara: 617 265 307, Josu.

**KAZETARIA BEHAR DA**

TXINTXARRI aldizkariak kazetari bat behar du. Interesa dutenek, bidali kurrikuluma txintxarri@txintxarri.info helbidera edo deitu 943 366858 telefonora.

**Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak**



Lasarte-Oriako Udala  
Euskarako Batzordea



Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: S5513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publikizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com. Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



# Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezia izango du Lasarte-Oriak

TXINTXARRI

**Asteleheneko ohiz kanpoko bilkuran Udaltzarrak Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezia sortzea erabaki zen PPK eskatuta.**

Urtarrilak 8ko udal batzarrean PPK krisi ekonomikoaren aurrean Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezia eskatu zuen, baina proposamena mahai gainean utzi eta hurrengo egunetan berriro aztertzea erabaki zuten Lasarte-Oriako zinegotziak.

Eta astelehenekoa izan zen gaia berriro jorratu zen eguna. Ohiz kanpoko bilkuran, Jose Encinas PPKo zinegotziak Aurrekontuen kontrolerako Batzorde Bereziko funtzionamendu berregituratu aurkeztu zuen. Eta udal-batzarrak batzorde berezia sortzea onartu zuen PSEE, EAJ-PNV, PP eta LOHPren aldeko botoekin. EBko zinegotzia aurka agertu zen eta adskribatu gabeko zinegotzia abstenitu egin zen.

Joxe Goikoetxea adskribatu gabeko zinegotziaren hitzetan, "ogasun batzordea hor dago eta hori aktibatzea garrantzitsua ikusten dugu."

Rikardo Ortega EBko zine-

gotziak zioenez "nolabait zinegotzi bakoitzari dagokien eginkizunak daude proposamen horretan eta aurrekontuen zirriborroa aztertzeke arazorik ez dago gaur egun. Ez dio balio erantsirik emango egun dagoen ogasun batzordeari eta horregatik bozkatzen dugu aurka."

Ana Urchueguia alkateak PSEEn aldeko bozka azaldu zuen. "Ogasunaren batzordearen eginkizuna da, baina ez daukagu ezer ezkutatzeko eta horregatik eman dugu aldeko botoa. Gainera, ongi deritzogu krisi batzordea egitea, ez baita bakarria izango. Estatu, Foru Aldundi eta udalek ere, EUDELen bidez, bat egingo dute egoerari aurre egiteko. Nahiz eta inork ez dakien zer den zehazki gertatuko dena."

## Batzorde berezia

Talde popularraren proposamenaren batzorde bereziaren eginkizunak azaltzen dira, "Aurrekontuen Kontrolerako Batzorde Berezia"ren eginkizuna eztabaida, onarpen, gauzatzeko eta kitapen faseetan aurrekontuen kontrola eta honen ikuskatzea da."

"Era honetara, zinegotziak laguntza edo aholku independentea izango dute hauei dagokien funtzioa era egokian



Aste honetako bilkuran estreinekoz erabili zuten aldebereko itzultzailea.

eta iraunkorrean burutu dezaten," jarraitzen du testuak.

Era berean, aurrekontuaren kontrola era eraginkorrean egiteko, funtzionamendu modeloa eta mekanismo eta baliabideak aztertu eta zehaztuko ditu eta aurrekontuak kudeatzen eta betearazten dituzten sail edo elkarte autonomo desberdinen organoekin harreman zuzena izan dezake.

Encinasek udal batzarrean azaldu zuen bezala, "Udal

taldeek ogasun batzordean duten ordezkarikopuru bera izango dute eta udal-ikuskatzaileak ere parte hartuko du. Batzordearen presidentea zinegotziak erabakiko dute".

Honetaz gain, batzordearen bilkurak aurrekontuen faseekin bat burutzea proposatu du PPK, beraz, lau bilkura urteko.

## Aldibereko itzulpena

Bestalde, irudi bitxia ikusi genuen aste honetako bilku-

ran, hainbat zinegotzi entzungailuak zituzten. Entzungailu horiek udalean ezarri den berrikuntza teknikoaren zati bat besterik ez dira, aldebereko itzultzailea.

Sistema honen bidez, itzultzaile profesional batek zinegotzien hitzak euskaratik gaztelarrera itzultzen ditu aldi berean, bilkurako eritimoa hautsi gabe.

Beraz, gure zinegotziak entzungailuekin ikustera ohitu beharko gara. •

## Aisialdia

### Jokoetan oinarritutako aisialdiaren eskutik



Irudian, abenduaren Zumaburuko eliza azpiko lokalean egingiko saioa.

Ostare Gazte Taldeak 14 eta 17 urte arteko gazteentzako aisialdi proposamena aurkezten du larunbata honetarako.

Abenduaren 13an egindako saioaren harrera ona ikusirik, Ostarek esperientzia errepikatuko du jokoetan -bideo-jokoak, mahai-tenisa, futbolaria edo

mahai jokoak- oinarritutako aisialdi eskainiz.

Eguraldiagatik kezkatu gabe eta giro onean une dibertigarri eta atsegina igaro ahal izango dute herriko gazteek, 22:00ak eta gaueko hamabi artean, Zumaburuko eliza azpiko lokalean. •

## Garraioa



### Astigarraga-Usurbil autobus-linea berria

Gipuzkoako Batzar Nagusien urtarrilaren 14ko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Batzordean Arantxa Tapiak, Mugikortasuneko diputatuak, Astigarraga, Hernani, Urnieta, Lasarte eta Usurbil lotzen dituen autobus-linea berria ezarriko dela aurreratu zuen.

Era honetara, egun lur eremu ezberdinetan lau auto-

bus konpainiek egiten duten lana, Lurraldebuseko autobus-linea berriak egingo du eta txartel bakararekin gainera.

Linea berri honi esker, Foru Aldundiak Buruntzaldeak egun duen garraio publiko eskaintza hobetzen du eta Lasarte-Oriak hain gertu dituen Hernani eta Urnieta herriekin lotura izango du. •

## LEHERKETA

### Donostiako Bigarren Ingurubideko lanak

Donostiako Bigarren Ingurubidearen lanak direla eta, beste leherketa bat izango da larunbatean, urtarrilaren 24ean. N-I eta Teresategi baserriaren artean egingo dute, 14:00etatik 16:00ak bitartean. Herritarrak jakinaren gainean jarri nahi ditu Udalak ustekabearen ez harra-patze arren. •

## JANARI BILKETA

### Sahararen aldeko Euskal Karabana

Sahar Herriaren Lagunen elkarteak Euskal Karabana-janari bilketa burutuko du goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte Urbil merkatal gunean. Atuna, sardinak, azukrea, lekadunak eta konpresak bilduko dituzte sahar herriari lagutzeko. •

# Oinatz Aranoko estazio megalitikora

Historio aurreko monumentu hauen inguruan jakintsuek diotena ezagutuko dute

TXINTXARRI

**A**rrikutz, Markina edo Ziortza-Bolibar horiek dira orain artean Oinatz taldeak egin dituen *Irteera kulturalak*. Oraingoan, Nafarroa egingo du taldeak. Bexabitik abiatu, Adarra mendi ondotik pasa eta Arano herrirako estazio megalitikoak ikustera. Baina gutxiago ibili nahi duenak ere badu txangoan parte hartzeko aukera.

Oinatz taldeak bere urteko plangintzari jarraituz otsailaren 8an Irteera kulturala antolatuko du Adarra mendi inguruan dagoen Aranoko estazio megalitikoak bisitatu eta, ondoren, babarrun jana egiteko.

## Bi aukera

Irteera goizeko 8:00etan izango da Bexabitik. "Argitu behar da ibilbidea gutxi gora behera hiru ordu eta erdikoa dela. Hainbeste ibili nahi ez dutenek ordea izango dute irteeran parte hartzeko aukera ere," azaldu digute Oinatz taldekoek.

Oinatzek eskaintzen duen bigarren aukera, Aranora kotxez joan eta bertatik esta-

zio megalitikora abiatzea da. "Hau gutxi gora behera 30 minutuko ibilbidea da," aipatu digute.

Beraz, estazio megalitikoan elkartuko dira bi taldeak. Bertan, histori aurreko monumentu hauen inguruan jakintsuek diotena ezagutzeko aukera izango dute irteeran parte hartzen duten herritarrek.

## Estazio megalitikoak

Aranoko estazio megalitikoak nahiz eta Nafarroan egon, Gipuzkoako Onyi-Mandogei estazio megalitikoak zati bezala dago onartua eta cromlechak dira nagusi.

Etzela, Unamene eta Errekalko multzoetan banatuak 75 bat harrespila daude herriaren inguruan eta hauetako batzuk ikustera joango da Oinatz taldea.

## Babarrun jana

Ariketa eta kulturaren ostein, energiak berreskuratzeko ordua dator. "Denok elkarrekin babarrun goxo batzuk, bedeinkazio guztiekin, jatera joango gara Aranoko ostatura," esan digute Oinatz taldekoek, "haurrentzako menua ere egongo da, frijituak, xerra eta izozkia."



Honela taldeak herritarrek animatu nahi ditu irteeran parte hartzera, "umore ona faltako ez denez egun pasa ederra egin ahal izango da."

"Gainera, Oinatzek antolatutako irteera hauek oso egokiak iruditzen zaizkigu euskara ikaste prozesuan dabilzanontzat edo ohitura

faltza motelduta daukatenontzat," atxiki dute.

Era berean, "ibilbidea nola egingo duzun jakin behar dugu. Denok kotxez joan eta etorri elkarrekin egingo baitugu," azpimarratu dute.

## Txartelak erosi

Irteerarako txartelak Ttakun

Kultur elkartearen eskuratuko dira. Helduen txartelak 18 euro balio ditu eta 6 euro, aldiz, haurrenak. Txartelak erosteko azken eguna otsailak 4 izango da.

Informazio gehiagorako hurbil zaitezte Ttakunera edo 943 371 448 zenbakira deitu. •

## Udalak eta Xpressionek hitzarmena berri dute

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak aurretik Xpression kultur elkartearekin sinatutako hitzarmena berri du.

Honen bidez, musika estilo askotariko taldeak bisitatu dute udalerrira. "Bere baitan 13 emanaldi hartzen dituen urte osorako akordioa da eta talde ezezagunei aukera emateko," azaldu zuen. Ana Urchueguia alkateak asteartean egindako prentsaurrekoan.

Lasarte-Oriako gazteei aisialdirako aukera berri bat eskaintzeki dator hitzarmenaren ideia, joan den urteko urrian lehenengoz martxan jarri zena. "Gazteei aisialdirako aukera berria eman nahi diegu eta, era berean, Kultur etxeari gazteei lotua dagoen erabilerara," aipatu zuen Lasarte-Oriako alkateak.

Kontzertuak hamabost egunero behin dira, ostiralean 20:00etan. Lehen hitzordua gaur dugu. Florencia Begue abeslari argentinarrek bosa nova eta jazzean oinarritutako erritmoez betetako kontzertua eskainiko du.

Hitzarmenak berak jasotzen duen moduan, Lasarte-Oriako Udalak 3.950 euroko laguntza emango dio Xpression elkarteari eta, horren truke, honek bere azpiegitura jarriko du tankera honetako ekitaldietarako, koordinazio eta gestiotik hasita emanaldiaren publizitateraino.

Jokin Telleria Xpressioneko kidea oso pozik agertzen 2008ko ekimenaren 5 kontzertuek harrera ezin hobea izan dutelako eta berriro ere udalarekin lan egitearekin, "Lasarte-Oria izan baita Xpression zirkuituan era finkoan parte hartu duen lehenengo udala."



Asteartean sinatu zuten hitzarmena Ana Urchueguia alkateak eta Xpression elkartearen Jokin Telleriak.

## Kafetegia kudeatzea

Gainera, Gazteria eta Festetako sailak udalerriko irabazi asmorik gabeko GKE, entitate eta taldeei kultur etxeko kafetegiko zerbitzua beren gain hartzea eskaini zien kontzertu hauetan.

Alkateak eta Zaballosek azaldu zuten, "hiru taldek

eman dute izena, batek azken momentuan atzera egin eta biren artean banatu ditugu: hemendik ekainera arte, Juanjo Maraten GKE eta irailetik aurrera Lasarte-Ursurbil Institutua egongo da. Era berean, eskerrak eman behar dizkiegu bi talde hauei egingo duten

lanarengatik."

2008an, Lasarte-Ursurbilgo Institutuko gazteen esperientzi onak izan dela ere azpimarratu zuten, "gazteak ongi moldatu dira eta gurasoak ere oso pozik agertu dira."

2010ean ekimenarekin jarraitzeko asmoa ere azaldu zuten Udal ordezkariek. •



# Euskal jantzi tradizional eta bainika ikastaroek jarraipena izango dute

■ 2008. urteko azken hiruhilabetean eskainitako ikastaroen arrakasta ikusirik, Ttakun Kultur Elkarteak jarraipena emango die otsailetik aurrera ■ Jantzi biltegia ere dagoeneko martxan da

TXINTXARRI

**E**uskal jantzi tradizional dotorea edo bainikaz apaindutako mantala edo soinekoa. Nork ez luke horrelakorik nahi? Ba Ttakun Kultur elkarteari esker berriro ere aukera duzu.

Abenduan arrakasta handiz burutu ziren bai jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa eta baita bainikak egiten ikasteko ere. Bat bestearen osagarri izan ziren eta bertaraturako ikasle zenbaiten maila bikaina izaki, uste baino jantzi gehiago egin ahal izan zituzten Ione Artola jostun irakslaren laguntzari esker.

Oso dotore ikusi genituen Santo Tomas egunean eta Gabon egunean kalean. Baina ikastaroa motz xamar geratu zen sentsazioarekin bukatu zuten gehienek eta aurrera egiteko gogoz geratu zirenez

berriro ere ekiteko asmoz dago Ttakun kultur elkarteak.

Bitxiak egiteko ikastaroa ere oso arrakastatsua izan zen. Hau ere motz geratu eta egun bat gehiago luzatu zen. Bertan egindako pitxiei esker batek baino gehiagok jasoko zuen opari dotorea Gabon hauetan.

## Eskulangile taldea sortu

Ondorioztatzen denez, esku trebetasuna eta gustu asko duen ikasleri potentziala dago herri honetan eta ikastaroetan erakutsi dutenez beste eskulan zenbait egiteko abileziak ere badituztela ikusiz, dei egiten zaie edozein era eta material erabiliz apaingarri politak egiteko gai direnei jar daitezela harremanetan Ttakunekin Dekorazio, apainketa, jantzi, koustimizazio, zaharberritze eta dena delako eskulanetan trebezia dutenei elkarrengandik ikasi daitekeelako.



Aurreko ikastaroetan bezala, josteko makinak eskura egongo dira.

"Uste dugu zenbait eskulangilerekin taldetxo bat sortu dezakegula antolatzen ditugun ekitaldietan talde iraunkor honek aportazio ederrak egin ditzakeelako gure jarduerak gozatzin," esan digu Mailu Arruti ikastaroetako arduradunak.

## Euskararen erabilera

Gustuko lanak eginez, lagun berriak ezagutu, aisialdia bete euskaraz. Hori zen helburua eta hala gertatu da. Hizkuntza aldetik euskaldun berriek diotenez oso asegarriak izan dira

jarduera hauek. "Garrantzi beraz baloratzen dugu ikastaro hauek zuten hizkuntza helburua ere," esan digu.

## Biltegia eta ikastaroak

Erriberako lokalean martxan dago dagoeneko Jantzi biltegia ere. Orain inauterietan berriro dei egiten da bai jantziak uzteko eta baita moztarrotu nahi izan ez gero maileguan hartzeko ere.

Jantzi tradizionalak egiteko ikastaroa bi ordutako 16 saiotan egongo da banatua eta asteazkenetan 15:00tatik

17:00etara egingo da otsailetik maiatza bukaera arte Ttakunek Erribera kalean duen lokaletan. Ikastaroak 40 euro balio ditu eta materiala bakoitzak jarriko du.

Bainika egiteko zortzi saio egingo dira, hauek ere bi ordutakoak. Asteartetan egingo da 15:00tatik 17:00etara otsaila eta martxoan lokal berean eta 20 euro ordaindu behar dira bertan parte hartzeko.

## Izena ematea

Ikastaroen ordainketa ez da izena emateko egunean egingo, behin ikastaroa hasitakoan baizik. Ttakunek bazkideek %10eko beharpena izango dute ikastaroen prezioan.

Ikastaroetan izena emateko edo hauen berri gehiago jakiteko deitu 943 371 448 telefono zenbakira. •



Oso gauza politak egin zituzten aurreko ikastaroen bainikarekin.

*Edozein era eta material erabiliz apaingarri politak egiteko gai diren herritarrei Ttakunekin harremanetan jar daitezela dei egiten zaie*



# ANAIAK

## JANTZI-DENDA

### BEHARPENETAN GAUDE

Kale Nagusia 25 · Tel.: 943 362386 · LASARTE-ORIA



Kiroletako agenda

**FUTBOLA**

**Larunbata 24**

**10:00etan**, Ostadar-Ordizia (Infantil Txiki Kopa) Michelinen.  
**11:30etan**, Ostadar-Bergara (Emakumezkoen KDT F-11, txapelaldun fasea) Michelinen.  
**15:30etan**, Texas Lasartearra-Intxurre (I. Jubenila, kopa) Michelinen.  
**17:15etan**, Ostadar-Irun C.F.1902 (II. Erregionala, igoera fasea) Michelinen.

**11:30etan**, Sporting de Herrera-Ostadar (Infantilen Ohorezko maila, kopa) Herrera, Donostian.  
**15:45etan**, Hondarribia-Ostadar (I. Jubenila, igoera fasea) Ondartzta, Hondarribin.

**Igandea 25**

**10:30etan**, Texas Lasartearra-Danena (II. Erregionala, kopa) Michelinen.

**12:00etan**, Zarautz-Ostadar (Kadeteen Ohorezko maila, kopa) Asti-Txiki, Zarautzen.

**15:30etan**, Real Union-Ostadar (Emakumezkoen Liga, kopa) Gal, Irunen.

**ARETO-FUTBOLA**

**Larunbata 24**

**18:00etan**, Pub Shepherd's-ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. Maila) Olaederra kiroldegia, Billabonan.

**HERRIKO TXAPELKETA**

Michelin edo frontoian

**10:00etan**, ISU Leihoak- Oriá kris.  
**10:50etan**, Mayi-Izkiñá  
**11:40etan**, Okela-Biyona  
**12:30etan**, Oriá Txiki-Lurra XXI  
**13:20etan**, Obelix-Ainhua  
**14:10etan**, Tragoxka-Danena  
**15:00etan**, Katanga Jordi  
**15:50etan**, Izarra-Ilargi

**Igandea 25**

**10:30etan**, Aldaz H.K.-Iralabarri (Euskal Liga) Kiroldegian.

**HERRIKO TXAPELKETA**

Michelin edo frontoian

**10:00etan**, Viña del Mar-Epel  
**10:50etan**, Buenetxea-Siglo XX  
**11:40etan**, IOB H.K.-Morrison

**FUTBOL 8**

**Larunbata 24**

**10:00etan**, Zarautz-Lasarte BHI (Infantila eskolartekoa) Asti-Txiki, Zarautzen.

**FUTBOL 7**

**Igandea 25**

**09:00etan**, Mudanzas Olivaria-Niasa-Corpa (III. Maila) Usurbilen.

**SASKIBALOA**

**Larunbata 24**

**16:30etan**, Goierri-Ainhua (Gizonezko seniorrak) Antzitza kiroldegia, Beasainen.

**ATLETISMOA**

**Igandea 25**

**10:00etan**, Donostiako Nazioarteko LIV. Krosa burutuko da Donostiako Hipodromoan.

**JUDO**

**Igandea 25**

**16:00etan**, LOKEko judokak Eskolarren Infantil mailako Gipuzkoako Txapelketarako sailkapena jokatu dute Galtzarabardako kiroldegian, Errenterian.

**17:00etan**, LOKEko Iñaki Elizalde, Asier Sagastik eta Amaia Curiel judokak Euskadiko Junior Txapelketan lehiatu dira Galtzarabardako kiroldegian, Errenterian.

**IGERIKETA**

**Larunbata 24**

**10:00etan**, Buruntzaldeako Igeri taldeko gazteak Kirol Zehaztasun Ligako 2. Jardunaldian lehiatu dira, Kiroldegian.

**PILOTA**

**Larunbata 24**

**12:15etan**, Intza-Lagunak (Eskuz binaka, II. seniorrak) Michelinen.

**16:00etan**, Mundarro-Intza I (Eskuz binaka, infantilak) Astigarragan.

**16:30etan**, Euskal Giroa 2-Intza I (Eskuz binaka, infantilak) Igeldon.

**16:30etan**, Lizardi Igelko-Intza 3 (Eskuz binaka, infantilak) Igeldon.

# Leire Zubizarretak brontzezko domina nazioarteko txapelketan

## Iñaki Elizalde Gipuzkoako txapelalduna junior mailan

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko judokak berriz ere, asteburu bikaina izan dute. Leire Zubizarretak Villa Madrid nazioarteko txapelketan brontzea eskuratu du; Gipuzkoako txapelketan, Iñaki Elizalde txapelalduna izan da eta Asier Sagastik eta Amaia Curiel brontzea irabazi dute.

Azken aldian Lasarte-Oria Kirol Elkarteko judokak kiroleko titularrak apertzen dira. Ez da azken txapelketetako gauza, azken urteetako baizik. Eta ez da gutxirako. Gorka Aristegi entrenatzaileak aurreko denboraldian esan zigun moduan, entrenamenduen eta ondo egingandako lanaren ondorio dira orain eskuratzen ari diren emaitzak.

Leire Zubizarreta LOKEko judoka aurreko asteburu osoa Madrilen igaro zuen, kadete mailako Villa Madrid nazioarteko txapelketan parte hartzen.

Hiru borrokaldi egin eta gero, brontzezko domina lortu zuen. Lehenengoan madrildar bati irabazi zion; final aurrekoan Italiako txapelaldunarekin neuritu zituen indarrak eta Leire gauzak ondo egin aren, italiarrak garaitu zuen; azken borrokkaldian beste italiar bat egokitu zitzaion eta honi irabazita eskuratu zuen domina.

Gorka Aristegiren ustez, Leirek Madrilen lortutako



LOKEko Iñaki Elizalde, Gipuzkoako txapelaldun berria, Amaia Curiel eta Asier Sagasti.

emaitza oso garrantzitsua da.

### Gipuzkoako Txapelketa

Honetaz gain, LOKEko judokak, Zarautzen, Gipuzkoako Junior Txapelketan eta alebiren Gipuzkoako kirol Topaketan parte hartu zuten aurreko asteburuan.

Junior kategorian, Iñaki Elizalde, Asier Sagastik eta Amaia Curiel parte hartu zuten.

Hauek ere zoriondu behar ditugu oso emaitza onak lortu baitzituzten: Iñaki Elizalde borrokkaldi guztiak irabazi ondoren Gipuzkoako Txapelalduna

izan da; Asier Sagasti akats txiki batengatik finalerik kanpo geratu zen eta Amaia gauza bera gertatu zitzaion. "Bost segundo falta zirenean kontzentrazio akats bat egin eta finalik gabe gelditu zen. Hala ere, bere progresioa oso ona da, kadetea dela kontutan hartzen badugu."

Laura Azkue, Alex Salsamendi, Haritz Urdangarin, Asier Zubizarreta, Oscar Garrido, Fermin Balda eta Mikel Gonzalez alebinak ere oso ondo aritu zirela esan digu Gorkak. Denak Gipuzkoako finalerako sailkatu dira. •

## XV. Pala Txapelketan izena emateko epea astelehenean zabalduko da

Ostadar Kirol Fundazioak gomazko pilotarekin jokatzeko XV. Pala Txapelketa antolatuko du. Astelehenean txapelketan izena emateko epea irekiko du eta otsailaren 6ra bitartean zabalik egongo da. Edizio honetan parte hartu nahi dutenek Ostadarreko bulegoan eman behar dute izena, astelehenean ostiralera 16:00etatik 20:00ak bitartean.



Ostadarrek antolatzen duen txapelketa honen ezaugarrietako bat gomazko pilotarekin jokatzeko dela da.

Imanol Bardaji txapelketako antolatzaileak adierazi duenez, "honen helburua bertakoa den kirol modalitate hau herrian sustatzea da. Horretarako parte hartzen duen bikote bakoitzetik behintzat bat herrikoa izan behar du, nahita nahiez. Modu honetan, kirol hau sus-

tatzen saiatzen gara gure herrian desagertu ez dadin eta gazteek kirol hau ezagutzeko eta jolasteko aukera izan dezaten."

Partidak aurreko edizioetan bezala, udal instalazioetako frontoian, Michelingo frontoian, jokatu dira asteburuetan. Txapelketan izena ematen duten bikoteen arabera egutegi bat zehaztuko dute. Antolakuntzatik adierazi dutenez, ziurrenik txapelketako otsailean bertan jokatzeko


hasiko dira eta maiatzaren hasierara arte luzatuko dira jardunaldiak.

Bilera bat egingo dute otsailaren 11ean, arratsaldeko 19:00etan, Ostadarreko bulegoan (Geltoki Kalea 25). "Ezin bestekoa da bikoteetatik behintzat bat bilerara etortzea. Egun horretan taldeen zozketa egin eta txapelketaren funtzionamenduen berri emango baitugu, batez ere txapelketan inoiz parte hartu ez dutenentzako." •

Kiroletako oharrik

**Igerilekua itxita**

Igeriketa txapelketa dela eta udal igerilekua bihar, larunbata, goizeko 9:00etatik 13:00etara itxita egongo da erabiltzaileentzat. Udal kirol instalazioko abonatuak Andoaingo (943-300147) eta Usurbilgo (943-373498) igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.





Egunero

**Erakusketa**

ILITZ OLANO MARTIN herritarra-  
ren "Gorputzeko umoreak"  
margoen erakusketa. Jalgi  
kafe-antzokian, egun osoan.



Igandea, 25

**Zinea**

MISION EN MOCLAND haurren-  
tzako filma. Sarrera: 3,15  
euro. Manuel Lekuona kultu-  
retxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ



Bossa nova eta jazz

FLORENCIA BEGUE abeslari argentinarraren emanaldia izango da gaur Udaleko Gazte-  
ria Sailak eta Xpressionk zirkuituak antolatutako kontzertuan. Florenciak denbora asko dabil musika munduan murgildurik, Buenos Aires-en jaso zituen aurreneko formazio musikalak, eta gaur egun Donostiako Musikene musika eskolan ikasten du. Florencia Begue bikote formazioan izango da (ahotsa eta gitarrak) emanaldi honetan, gitarrekin Manu Losio izango da, ere bai Buenos Aires-eko musikaria, eta Musikeneko ikaslea. Xpression!!! Zirkuitua.

GAUR OSTIRALA 20:00ETAN  
KULTURETXEKO KAFETEGIAN

Ostirala, 30

**Kontzertua**

DONOSTIA ENSEMBLE taldearen kontzertua Danok Kide elkarteak antolatutako IV. Topaketa Musikalen barruan. Brigitarren komentuan, 19:30ean.



Ostirala, 30

**Bideoforuma**

LOS LUNES AL SOL filma eskaini eta gero, Merche Humada psikologoarekin egingo da solasaldia. Emakumeen Zentro Zibikoan, 16:30etik 19:00etara, GAZTELANIAZ

Larunbata, 31

**Antzerkia**

ZER DUZU NEGARREZ, MARIE? haurrentzako antzerkia Marie Jongh konpainiarekin eskutik. Sarrera: 3, 15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.



Liburutegiko ordutegia



Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara  
eta 17:00etatik 21:00etara  
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irratiko programazioa



**Ostiralero programa!**

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

**Erketzeko konpartsa-  
entsaio eguna aldatu da**

Orain 2 urte ekialdetik etorritako arabiarrekin eta beraien dantzekin txundituta geratu bazinen eta iaz, Rafaella Carrarekin gorputzeko hezur guztiak astindu bazenituen... ez pentsatu gehiago eta animatu zaitez gure karrozan parte hartzera, ondo pasako duzu eta nahi adina dantzatu. Izena emateko Erketzeko lokalera joan Zumaburu ikastolan. Entsaioak larunbatetan izango dira 15:00etatik 16:30era urtarrileko 17, 24, 31an eta otsaileko 7 eta 14an.

**Euskal Karabana**

Lasarte-Oriako Saharar Herriaren Aldeko Elkarteok kideek Sahararen Aldeko Euskal Karabanarako elikagai bilketari amaiera emango diote eta azken bilketa Urbilen egingo dute larunbat honetan, goizeko 11:00etatik 19:00etara. Karabana honek elikagaiak errefuxiatuen kanpamenduetara eramanez nahi ditu: arzoa, azukrea, lekadunak, sardinak, atunak eta konpresak. Bilketa larunbatean amaitzen den arren, badago aukera ekimen honetan parte

hartzeko, dirua bidaliaz. Elkarteok kontu korrontea ireki dute Euskadiko Kutxan, 3035 0080 94 0800054177.

**Sinadura bilketa**

Hondakinen gaikako bilketa intentsiboa egiteko eta materia organikoaren bilketa sustatzeko eta honekin ongari naturala egiteko legearen aldeko sinadurak biltzen egongo dira bihar larunbata, urtarrilaren 24a, Lasarte-Oria Bizirik taldeko kideak Zabale-  
tako plazan 12:00etatik 13:30era eta Michelingo futbol zelaian.

**Euskal Inauterien entsaioak**

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileak jakin arazi nahi dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberri BHI egoitzan (REM ohia) egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Parte hartzeko entsaio egun batean agertzea besterik ez duzue, animatu!!

**Zirko Mundialaren bilera**

Aurtengo inauterietarako Ttakunek desfilea antolatu du *Zirko Mundialaren* gaiarekin. Pertsonaiak banatzeko, mozo-

roekin laguntzeko eta hainbat gauza zehazteko bilera bat egingo da gaur. Bilkura Ttakunek Erribera kalean duen lokalean egingo da arratsaldeko 19:00etan. Animatu zaitezte eta hartu parte!!

**Udalatik barkamena**

Udalak barkamena eskatu nahi die abenduaren 31n egin zen kobraketa baten ondorioz kaltetuak izan diren udal kirolegiko erabiltzaileei. Akatsa lehenbailehen zuzenduko da kaltetuei dirua bueltatuz.

**Marrazketa eta pintura eskolak**

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak jakinarazi nahi du marrazketa eta pintura eskolatan lekua badagoela. Izena emateko, asteazkenetan eta ostiraletan arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara kulturetxeko bigarren solairutik pasa.

**Nazimenduko lagun-  
eskerrak**

Nazimenduaren lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie abenduaren 24ean egingako eskean dirua eman

zuten guztiei. Mila esker! Dirua Yankee II Nikaraguako herrixkara bideratuko da Alejandro Romoren bitartez.



**Odol ateratzeak oraindik  
anbulatorio zaharrea**

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan arratsaldeko 18:30etik 21:00etara. Anbulatorio berria inauguratu bada ere, hilabete honetan behintza zaharrea egingo dira ateratzeak. Anima zaitezte, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

**Oharrak jartzeko:**

Tel.: 943 366858  
txintxarri@ttakun.com  
txintxarri@txintxarri.info  
www.txintxarri.info

**Dagokionari**

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko haurrak gimnasioan ospatu zuten danborrada.



Landaberri ikastolako haurrek jolas lekuan dagoen aterpearen azpian jo zituzten danborrak.

# Danborren burrunbak entzun ziren astelehenean herriko ikastetxeetan

Euri zaparradari ederki egin zioten aurre herriko danborrari txikiek

## TXINTXARRI

San Sebastian festari aurreratu ziren Lasarte-Oriako danborradek. Urte hasieran ikastetxeetan gabonetako apaintetak kendu eta San Sebastian eguna zetorrela hasi ziren gelak apaintzen eta danborraz jotzeko abestiak ikasten gure herriko ikastetxeetako haurrek, Sasoeta-Zumaburu Ikastetxeko eta Landaberri Ikastolako ehunka ikaslek -Garaikoetxeako nahiz Zubietako eraikinekoek-.

Eta iritsi zen haurrek gogoz eta ilusioz espero zuten eguna, San Sebastian egunaren bezpera. Goiza ateri eta hego haizea egon zen

arren, arratsaldeko laueterako, danborrariak ikastetxeetako jolaslekura atera behar zuten momentuan, izugarrizko euri zaparrada botatzen hasi zen. Hala eta guztiz ere, euriak ez zien festa hondatu: aurreko egunetan prestatutako arropak jantzi, danborrak hartu eta batzuek aterpean, besteak gimnasioan, denek jo zuten danborra.

### Aterpe baten bila

Sasoetan gimnasioan jotzea erabaki zuten eta egia esan, soinketa lekua lepo egon zen, danborrariz gain, senitartekoak ere lekua aurkitu baitzuten bertan. Garaikoetxean saski-

baloi-zelaiko estalpean jo zuten, baina hemen guraso, aiton-amonek, izeba-osabek... aterkiak ireki behar izan zituzten. Denak ez baitziren estalpean sartzen. Landaberriko Zubietako eraikineko ikasleek berriz, anfiteatroan jo zuten. Landaberriko Zubietako eraikineko ikasleek berriz, anfiteatroan elkartu ziren danborrak astintzeko.

Astelehenean, beraz, euriari aurre egin zioten Lasarte-Oriako danborrariak. Konpainia desberdinetan, gogoz eta dotore jantzita jo zituzten herriko himnoa eta Raimundo Sarriegiren piezak. Denek txintxo-txintxo jarraitu zituzten

zuzendarien aginduak.

Asteartean, berriz, ikasle askok Donostia aldera joango ziren haurren danborradak ikustera. Hauek Lasarte-Oriakoak baino zorte handiagoa izan zuten eguraldiarekin.

### Inauteriak

San Sebastian eguna pasa da eta danborrak, makilak eta jantziak jaso eta hurrengo jaialdia prestatzeari ekingo diote, laster kaldereroak eta inauteriak izango dira eta.

Gogoratu otsailaren 21ean Zirko Mundiala etorriko dela Lasarte-Oriara. Adin guztiak parte hartzeko moduko jai mundiala. •

- Larunbata eta jai eguerditan irekita
- Asteartetik larunbatera gauero irekita

# OTEGI

SAGARDOTEGIA  
SOLLAENEA BASERRIA



*Txotx garaia larunbat honetan Urtarrilaren 23an hasten dugu!*

Zabaleta auzoa • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 365029